

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasun Departamentuak Transbide sortu du, pertsona transexualen, transgeneroen eta intersexualen arreta hobe bermatzeko unitatea

LGTBI+kolektiboko pertsonen gizarte-berdintasunerako Foru Lege berriaren baitan kokatzen da neurria

Asteazkena, 2018.eko otsailak 14

Osasun Departamentuak Transbide jarri du martxan, pertsona transexualei, transgeneroei, intersexualei eta beren familiako eta gertukoenei kalitatezko arreta integrala bermatzeko diziplinarteko unitate tekniko berri bat.

Neurria berriki onartutako [Foru Legearen](#) baitan kokatzen da (2017ko ekaina), LGTBI+ pertsonen gizarte-berdintasunerako onartu zena. Kolektibo horren parte diren pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorra eta beren eskubideak modu osatuan bermatzeko neurri, baliabide eta printzipioak ezarri eta arautzen ditu arauak. Zehatzago esateko, legeak ezartzen duenaren arabera, Nafarroako Osasun Sistema Publikoak berak bermatu beharko du osasun-politikak pertsona horien errealitateak patologia gisa ez tratatzea, ez zuzenean eta ez zeharka.

Zentzu horretan, [Foru Arauaren](#) bitartez arautzen den Transbide arreta-eredu berriak, identitate sexualerako autodeterminazio askea ezartzen du. Eskubide hori ezin izango da inola ere mugatu, murriztu, zaildu edo kanpo utzi, eta arauak beti interpretatu eta aplikatu beharko dira eskubide horren erabilera aske eta osoaren alde.

Sentitzen den identitatea hobeto garatzeko beharrezkoak diren tratamendu mediko edo kirurgikoak interesdun pertsonaren eskaeraren arabera egingo dira, harrera-elkarrizketa, baliozkotzea eta transexualitate-egoeraren ziurtagiria egin ondoren, beharrezko autoadierazpenaren bitartez. Jada ez da beharrezko izango psikiatriako adituen esku-hartzerik, eta ezta osasun mentalaren eremuan kodifikaziorako diagnosi bat sartzerik.

Aipatutako tratamenduen agindua aurretiazko informazio objektibo eta zientifikoa eman ondoren egingo da, tratamendu jakin horrek pertsona bakoitzarengan izan ditzakeen onura eta arriskuak medikuak eta pazienteak aurretiaz baloratu ondoren, eta informatu ondorengo baimen libre eta borondatez onartua eman ondoren.

Arreta integraleko protokolo berria ebidentzia zientifikoa eta praxi medikoan oinarrituta egon beharko da, edozein dela kasua ere 8/2017 Foru Legean jasotzen diren printzipio eta eskubideak guztiz errespetatuz. Lana gauzatzeko, trans kolektiboko ordezkarien kolaborazio aktiboa

izango dute, eta baita LGBTBI+ berdintasunaren alde ari den organo koordinatzailearena ere.

Unitate berria Transexualitatearen Arretarako Batzordean aurkeztuko da, datorren otsailaren 15ean deitua dagoena.

Transbiderako sarbidea

Programako lehen kontsultarako trans pertsonen sarbidea zuzenean egingo da, pertsonak hala eskatuta, edo baita Lehen Mailako Arretako edo Sexu eta Ugalketa Osasuneko zentroetako ekipoetako profesionalak hala igorrita.

Honako profil profesionaletako profesional banak osatzen du taldea: psikologia klinikoa, sexologiako prestakuntza; osasun hezkuntza, sexologiako prestakuntza; endokrinologian aditua; eta, azkenik, pediatriako aditua, endokrinologiako prestakuntzarekin.

Halaber, honako estamentu eta espezialitateetako erreferentziazko aholkulari profesionalak ere izango dira unitatean: gizarte lana; ginekologia; otorrinolaringologia eta logopedia, kirurgia plastikoa; kirurgia orokorra; osasun mentala; eta, azkenik, urologia-andrologia.

Hala, transexualitate, transgenero eta intersexualitate gaietako erreferentziazko zentro espezializatua bilakatuko da Transbidea, eta aspektu guztiak jasoko ditu bere funtzioetan: banakako informazioa eta orientazioa ematea; tratamenduen onura eta arriskuak ebaluatzeko beharrezko frogak eta miaketak osagarriak egin edo egiteko eskatzea, eta baita erreferentziazko espezialistekin beharrezko diren kontsultak egitea; unitate superespezializatuera igorri behar ez diren tratamendu mediko eta kirurgikoak egitea; eta, baita, kolektiboaren parte den pertsonari eta/edo bere familiakoei prozesuan zeharreko babes emozionala eman eta konpainia egitea, besteak beste.

Momentura arte, Genero Nortasunaren Nahasteetako Arretarako Unitatea (gazteleraz UNATI - Unidad de Atención a Trastornos de Identidad de Género) izan da eremu honetako erreferentziazko unitatea, zeina Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesional desberdinen inplikazio bereziari esker jarri zen martxan, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko aurretiazko Foru Legearen garapenean. Aipatutako aurretiazko unitate hori endokrinologiako, osasun mentaleko, pediatriako eta heziketa sexualeko profesionalak osatzen zuten, zeinak arreta sanitarioko zerbitzua ematen zieten transexualei, baina beharrezko arauketarik gabe eta baliabideen esleitze formalik gabe orduan.